

Hernaniko Udala



Hernanin kirol arloan emakume eta gizonen  
egoeraren Diagnostikoa  
eta  
hobetzeko Plana



AVENTO  
CONSULTORIA 

2007ko Martxoa



# 1. Sarrera

## Araudi eta legedia esparrua:

- EEEPP (Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Plana)
- Euskadiko Kirolaren Legea 14/1998
- Kirolaren Euskal Plana 2003-2007
- Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea
- Hernaniko Udaleko Emakume eta Gizonen Berdintasun Plana



## 2. Helburuak eta Metodologia

### Helburu orokorra

Hernaniko kirol arloaren diagnostiko bat egitea generoaren ikuspegitik.

### Aztertutako arlo nagusiak

- Udal Kirol Patronatua (UKP)
- Partaidetzako Kirola
- Errendimenduko Kirola
- Eskola Kirola

### Metodologia mistoa

Datu kuantitatiboak, elkarrizketak eta talde-dinamikak




## 3. Azterketa

### 3.1 UKP


#### 3.1.1. Egitura

- Hernaniko UKP 46 pertsonek osatzen dute.
- Egun Patronatuan lan egiten duten emakumeen %66 kirol zerbitzuen enpresa edota garbiketa enpresaren bitartez azpikontrataturik dago, aitzitik, azpikontrataturako gizonen kopurua %36 da.
- UKPn lan egiten duten gizonen %60 zuzendaritza politikoa daude edo bertako langile finkoak dira. Emakumeen %24 dago egoera honetan.

UKPn emakumeek dituzten lanpostuak



UKPn gizonek dituzten lanpostuak



ITURRIA: Norberak egina



### 3.1.2. Instalazioak

- Egungo eskariari aurre egiteko **espazioen beharra**
- Kiroldegiko zenbait espazio **konpontzeko beharra**
- Oztopo arkitektoniko** asko kiroldegian
- Maiz kirola egiten den leku batzuetan **argiztapen eskasa**


INSTALAZIOA	KUDEAPENA
Atletismo pista	Udal Kirol Patronatua
Ereñotzuko Bolatokia	Udal Kirol Patronatua
Etxeberriko Bolatokia	Udal Kirol Patronatua
Karabeleko futbol zelaia	Udala
Ereñotzuko futbol zelaia	Udala
Zubipeco futbol zelaia	Club Deportivo Hernani
Zinko Eneako Skatinga	Udala
Tilisetako frontoia	Udala
Landare rugby zelaia	Hernani Club de Rugby
Latxunbe Berriko pista balioanitza	Udala
Antziolako pista balioanitza	Udala
Gartzia Goldarazeko pista balioanitza	Udala
Santa Barbarako tiro zelaia	Sociedad de Caza y Pesca Txantxangorri
Mendi Mendiyan	Udal Kirol Patronatua
Arrauneko pabiloia	Udal Kirol Patronatua
Jauregiko eskola zaharrak	Udal Kirol Patronatua
Bulder-Eskalada	Hatzi Climbers
Udal Kiroldegia	Udal Kirol Patronatua



### 3.1.3. Diru-laguntza politika

- UKPko aurrekontuaren %5 elkarteei ematen zaie hitzarmen eta diru-laguntzen bidez (IV Kapitulua-Transferentzia Arruntak)
- Hitzarmenak C.D. Hernani eta Hernani Rugby Elkartearekin sinatzen dira hurrenez hurren Zubipe eta Landareko instalazioak kudeatzeko.
- UKPtik diru gehien jasotzen dituzten modalitateak futbola, errugbia eta igeriketa dira.
- Diru-laguntzak emateko irizpideek izaera orokorra dute (kategoria, kirol maila, kirolari kopurua, e.a.).

UKPren 2006ko aurrekontuaren ehunekoa Kapituluen arabera




ITURRIA: Norberak egina

UKPren gastuak Kapituluen arabera

KAPITULUA	KONTZEPTUA	GASTUA
I	Pertsonala	502.121 €
II	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	684.889 €
III	Finantza gastuak	8.383 €
IV	Transferentzia arruntak	114.962 €
VI	Inbertsio errealak	919.888 €
VIII	Finantza aktiboak	7 €
IX	Finantza pasiboak	80.309 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.310.559 €</b>

ITURRIA: UKP

Elkarte bakoitzari emandako diru-laguntzaren ehunekoa. 2004/2005 denboraldia



ITURRIA: Norberak egina




### 3.1.4. Mintzaira eta sexismoa

- Dokumentu gehienak genero-maskulinoan idatzita daude eta hizkuntzaren erabilera ez sexista egiten saiatzen diren kasuetan, irizpide homogeneo baten beharra nabari da.



### 3.2 Partaidetzako Kirola

- Egun Hernaniko biztanleriaren %36,6k UKPn abonua du (%51 emakumeak eta %49 gizonak)
- Guztira 1.590 pertsonak (1.076 emakumeek eta 514 gizonak) UKPk eskaintzen duen ekintza bat egiten dute.
- Emakumeek gizonak baino jarduera gehiagotan parte hartzen dute, aerobica izanik emakume gehien dauden ekintza.
- Kiroldegian sarrera maiztasun gehien dituzten urte-tarteak 11-20, 31-40 eta 41-50 dira, azken bietan emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izanik.
- Gehienetan amek laguntzen diete seme-alabei kiroldegiko ikastaroetara eta bitartean ez dute kirolrik egiten.




ADINA	EMAKUMEAK	%	GIZONAK	%	GUZTIRA	%
1-10	670	72,7	738	73,5	1.408	73,1
11-20	520	62,5	545	67,4	1.065	64,9
21-30	481	41,3	434	35,1	915	38,1
31-40	832	49,9	711	40,5	1.543	45,1
41-50	725	46,3	718	43,7	1.443	45,0
51-60	201	17,4	208	17,3	409	17,4
61-70	63	6,7	60	6,9	123	6,8
71-80	23	2,6	17	2,7	40	2,7
80+	6	1,2	3	1,2	9	1,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.521</b>	<b>36,6</b>	<b>3.434</b>	<b>36,6</b>	<b>6.955</b>	<b>36,6</b>

ITURRIA: Norberak egina





## 2006/2007ko jardueretan partaidetzaren erkaketa sexuaren arabera




ITURRIA: Norberak egina

- Emakumeek goizez eta arratsaldez egiten dituzte kirol ekintza hauek, gizonek aldiz, gauez (arratsaldeko 19etatik aurrera).
- Erabilera libreko instalazioak gehien bat gizonek erabiltzen dituzte (gimnasioa, frontoia edo pista).
- Hernanin jarduera fisikoa egiteko beste zenbait modu: ibiltzea, korrika egitea, bizikletan ibiltzea, palan jokatzea, eskalatzea,...



### 3.3 Errendimenduko Kirola


- Hernaniko biztanleriaren %7 federatuta dago
- 15 kirol elkarte eta 21 modalitate daude
- Herriko 1.248 federazio-lizentzietatik 22 emakumeenak eta 1.026 gizonenak dira.





## Hernaniko Udala

- Datuen arabera emakume gutxi dago herriko errendimenduko kirolean.
- Mendia eta ehiza eta arrantzako lizentziak ezin dira gainontzeko datuekin bateratu ondorioak ateratzeko orduan.
- Hernaniko taldeko-kiroleko 7 modalitateetako 22 taldeetatik soilik 5 dira emakumeenak.



ITURRIA: Norberak egina



- Talde-dinamika eta elkarrizketetan kirola egiteko modua aldatu dela eta kirol elkarteetan boluntariora gutxitu egin dela diote.
- Elkarteetan kirola egiten duten emakumeek diote diskriminazio egoerak bizi dituztela elkarteetan: entrenamendu eta partiden ordutegiak, harropak, instalazioak, entrenatzaileen esleipena...
- Baita ere aipatu dute neskek jarduera fisikoa eta kirola mutilek baino lehenago eta sarriago uzten dutela.




### 3.4 Eskola Kirola

- Hernaniko eskola kirolako programa hiru arotan banatzen da kategoriaren arabera: benjamina (9-10 urte), alebina (11-12 urte) eta infantila (13-14 urte).
- Hernaniko eskola adineko nesken %56,7k eta mutilen %63,3k parte hartzen dute eskola kiroleko programan; bi zifra horiek Gipuzkoako batezbestekoaren azpitik daude.
- Partaidetzan ezberdintasun handia dago kategoriaren arabera; infantil mailako partaidetza benjamin mailakoaren erdia da.
- Mutilen lizentzia kopurua neskena baino handiagoda kategoria guztietan
- Kontutan izan behar da infantil mailako mutil asko jada elkarteetan parte hartzen ari direla federazio-lizentzia batekin (futbola, pelota,...)

	NESKAK	%	MUTILAK	%	GUZTIRA	%
Benjamina	111	61,7	118	75,2	229	68,0
Alebina	123	66,8	145	76,7	268	71,8
Infantila	57	38,3	60	37,5	117	37,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>291</b>	<b>56,7</b>	<b>323</b>	<b>63,8</b>	<b>614</b>	<b>60,3</b>



□ Alebin mailan neskek gehien aukeratzen dituzten modalitateak futbola, saskibaloia eta boleibola dira; mutilek gehien bat futbola, saskibaloia eta pelota aukeratzen dituzte.



□ Modalitateen aukeraketa oraindik ere sexu estereotipoen arabera egiten da; gimnasia erritmikoa soilik neskek egiten dute, boleibola egiten duten nesken kopurua mutilenaren bikoitza da eta errugbian ez dago neska bakar bat ere.

□ Orohar, infantil mailatik kadeterako aldaketan neskeentzat ez dago mutileentzat kirol eskaintza haina.



- Modalitateen arteko ezberdintasunak: soilik futbolean ematen dira sariak
- Lehiaketara gehiegi zuzentzen den kirol-jarduera
- Egungo begiraleek ez dute prestakuntza maila egokia
- Eskola kirolean gurasoek norbere funtzioaz kontzientziatu beharra



## 4. Aldagai sozialak

- Haurren mugikortasun eza egungo gizartean
- Konpromezu falta
- Kirol jardueraren hastapena eta uztearekin zerikusia duten zenbait aldagai sozial:
  - Eskola
  - Familia
  - Lagunak
  - Rolen esleipen soziala
  - Komunikabideak
  - Erakundeak





## 5. Ondorioak

### □ UKP

- UKPko pertsonalean emakume gutxi dago erabaki eta zuzendaritza postuetan.
- Udal instalazio onak baina ez dira nahikoak egungo eskariari aurre egiteko.
- Zenbait instalazio konpontzeko beharra probetxugarriak izan daitezten.
- Sarri kirol erabilera duten herriko zenbait gune argiztatzeko beharra.
- Kiroldetik traba arkitektonikoak ezabatzeko beharra.
- Elkarte eta kirol sistemako beste agenteekin komunikazio bide egonkorrak sortzeko beharra, elkarbizitza eta koordinazioa hobetzeko.
- Kirol erakundeei diru-laguntzak emateko irizpideak berrikusteko beharra (UKPk emakumeen partaidetza areagotzeko irizpideak ezartzeko eskuduntza du).



## □ PARTAIDETZAKO KIROLA

- Emakumeek gutxi gora behera UKPk eskaintzen dituen jarduera guztietan parte hartzen dute.
- Ikastaroetako inskripzioen 100%aren %79 emakumeak dira.
- Gehien egiten dituzten ekintzak aerobica (%31), pilates (%19) eta mantentze-gimnasia (%13) dira.
- Gizonek gimnasia norbere kabuz joateko joera dute. Parte hartzen duten antolatutako jardueretatik spinning (gizonen %36k) eta mantentze-igeriketa (%19) dira gehien egiten dituztenak.
- Gizonek gimnasia norbere kabuz joateko joera dute. Parte hartzen duten antolatutako jardueretatik spinning (gizonen %36k) eta mantentze-igeriketa (%19) dira gehien egiten dituztenak.
- Emakumeek laguntzen diete seme-alabei ikastaroetara eta tarte horretan ez dute kirolik egiten.
- Hernanin jende askok egiten du kirola antolatutako egituretatik kanpo. Gehien egiten diren ekintzak: ibiltzea, korrika egitea, mendira joatea, palan jokatzea, bizikletan ibiltzea eta eskalatzea dira.



## □ ERRENDIMENDUKO KIROLA

- Hernaniko biztanleriaren %7 federatuta dago. 1.248 lizentzietatik 222 emakumeenak dira eta 1.026 gizonenak.
- Gimnasia erritmikoko eta igeriketako elkarteak salbuk, beste guztietan emakume baino gizon gehiago dago. Tiroa, errugbia, arrauna, areto futbola, saskibaloia eta xakeko elkarteetan ez dago emakume bakar bat bera ere.
- Emakume gehienak mendian (%49, futbolean (%15) eta boleibolean (%9) federatuta daude; gizonak aldiz ehiza eta arrantza (%30), mendia (%26) eta futbol (%14) egiten dute gehien bat.
- Hernanin dauden zazpi talde-kirol modalitateetatik emakumeak soilik waterpolon, boleibolen eta futbolean daude.
- Emakumeek kirola mutilek baino sarriago eta lehenago uzten dute eta elkarteetan diskriminazio egoerak bizi dituzte, esleitutako instalazioei, entrenamendu eta partidetak ordutgiei, harropei eta entrenatzaileen esleipenari dagokionez.



## □ ESKOLA KIROLA

- 06/07 denboraldian 614 pertsonen parte hartu dute, horietatik eskola garaiko biztanleriaren nesken %56,7 eta mutilen %63,8 izanik.
- Kategoria guztietan mutilen lizentzien kopurua neskena baino handiagoa da.
- Datuek beherakada azaltzen dute alebin mailatik infantilerako aldaketan (kontutan izan behar da azken honetan mutil asko federatu egiten direla).
- Infantil mailatik kadeterako saltoan (14 urte) kirol eskaintza okerragoa da neskenentzat.
- Beharrezkoa da begiraleek prestakuntza izatea eta hezkidetzan hezitzen jakitea.
- Beharrezkoa da gurasoak konturatzea norbere seme-alaben kirolarekiko jarreraren eragiten dutela eta betebeharrak garrantzitsuak dutela.
- Kirol-uzte goiztiarra ekiditeko neurriak hartzeko beharra.



# HOBEKUNTZA PLANA

1. UKP	
<b>1. Hernaniko instalazioak eta kirol azpiegitura hobetzea</b>	
	1.1. Egungo instalazioak hobetzea erabilera aukerak areagotzeko
	1.2. Kirol jardueretarako erabiltzen diren beste naturako espazioak edo espazio fisikoak egokitzea
	1.3. Kiroldegiko traba arkitektonikoak deuseztatzea
<b>2. Kirol-sistemako maila guztietan emakumeen partaidetzaren sustapena bultzatzea</b>	
	2.1. Elkarteei diru-laguntzak emateko balioespen irizpideak aldatzea
<b>3. Elkartean emakumeenganako diskriminazio modu guztiak erauzte</b>	
	3.1. Xede- diru-laguntzak ezartzea elkartean diskriminazio egoerak zuzentzeko neurriak izateagatik
	3.2. Diru-laguntzetan penalizazio irizpideak sartzea, jokaera diskriminatiboak dituzten entitateentzat
<b>4. UKPko dokumentu eta irudietan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatzea</b>	
	4.1. UKPko dokumentuetako testu eta irudiak berrikusi eta aldatzea
	4.2. UKPn lan egiten duten pertsonen prestakuntza ematea
<b>5. Herriko kirol agenteekin komunikazio bide egonkorak sortzea, koodinazioa, elkarbitza eta gogobetetze maila areagotzeko</b>	
	5.1. Udal Kirol Kontseilua sortzea
	5.2. Kontseiluan Hernaniko kirol arloko diskriminazio egoerak salatu eta berdintasunaz artatuko den emakumeen kirolaren arduradun bat izendatzea



<b>2. PARTAIDETZAKO KIROLA</b>	
<b>1. Kiroldagiko erabiltzaileen gogobetetze maila areagotzea</b>	
	1.1. Denboraldi bakoitza amaitzean galdeketa bat pasatzea
<b>2. Emakumeen kirol partaidetza dibertsifikatu eta bistaratzea</b>	
	2.1. Herrian egiten diren herri krossetako batean kategoria mistoa sortzea
	2.2. Emakumeen kirolaren egun bat antolatzea
<b>3. Seme-alabei ikastaroetara laguntzen dieten amen artean kirola egitea sustatzea</b>	
	3.1. Inskripzioak egiten direnean kanpaina espezifikoak egitea kolektibo baten eta besteen ordutegiak sinkronizatuz



3. ERRENDIMENDUKO KIROLA	
1. Elkartean emakumeen partaidetza maila areagotzea	
	1.1. Federazio-mailako kirol eskaintza eskolako kirol eskaintzarekin koordinatzea kirol-jarraipena ahalbidetzeko
	1.2. Emakumeentzat kirol eskaintza areagotzea
2. Emakumeen errendimenduko kirola sustatzea	
	2.1. Urtero Hernaniko emakume kirolari hoberena saritzea
	2.2. Urtero kirol arloan emakumeen parte hartzea bultzatzen ahalegintzen den pertsona, elkarte edo erakundea saritzea



#### 4. ESKOLA KIROLA

##### 1. Eskola kiroleko programaren kalitatea areagotzea

1.1. Begiraleak profesionalizatzeko prozesua abian jarri, begirale adituak kontratatuz edo egungoari prestakuntza emanez

1.2. Kirol topaketetako jokabide arauen dekalogo bat jasotzen duen eskuliburu bat egitea gurasoei eskola kirolean duten eginkizunaz sentsibilizatzeko

1.3. Urteko festa bat egin eskola kirolean parte hartzeagatik sari-sistema homogeneoa ezarriz





[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)



Portuetxe 45A, 4º-2 20.018 Donostia  
943 31 70 38  
943 31 70 48  
[info@aventoconsultoria.com](mailto:info@aventoconsultoria.com)  
[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)